

ELKARGOAK EUSKARAZ

Berripapera - Boletín

3. Elkargo Ekin - Txantxangorria - Kartelak -Mintzaonline 2020
Jakizu Ekin-Actuemos - Txantxangorri - Carteles - Practicar online Maiatzak 27

ELKARGO EKIN: ERAKUSKETA DIGITALA

Elkargoak Euskaraz baita, Elkargo Ekin egitasmoa dugu: hiru hilerik behin egingo diren motibazio ekimenak, giro lasaian euskaraz aritzeko, kontzientzia pizteko eta elkarrekin jarduteko. Koronabirusak sortutako egoera dela eta, lehen ekimen moduan hauxe proposatu nahi dizuegu:

Euskara bultzatzeko zer egiten duzu?

Urteak izango dira zure esparru profesionalean aritzen zarela... eta euskaraz presentzia izan dezan, zerbait egin duzula. Gure proposamena hauxe da: bidalguzu basqueproeus@bm30.eus helbidera ekainaren 30a aurretik jarri duzun euskarazko errotuluren bat, elebidun erabiltzen duzun faktura bat, Euskaraldian zein Korrikan parte hartu zenuteneko argazkiren bat, euskaraz jarri duzun webgunea, edo... bururatzen zaizuena!!! Edo bizitakoa kontatu! Animatu!!! Gero jasotzen dugun guztiarekin online erakusketa bat egingo dugu.

TXANTXANGORRIA ERABILTZEN

Basqueproren Elkargoak Euskaraz proiektuko parte-hartzaileok hasi gara jarritako lehen helburua martxan jartzen, egoerak utzi digun heinean behintzat.

[Aurreko Jakizuren alean](#) irakurri zenuen bezala, Txantxangorria izan da lehen helburua: euskaraz egiteko konfiantza ematen duen logoa. Gu jada erabiltzen hasiak gara zabalik dauzkagun bulegoetan eta sinadura elektronikoan. Eta zu? Animatuko zara?

KARTELAK EUSKARAZ DESKARGATZEKO PREST JARRI DITU BAI EUSKARARIK

COVID-19 birusaren pandemia dela eta orain behar ditugun errotuluak deskargatzeko prest jarri ditu hainbat hizkuntzatan Bai Euskarari Elkarteak. Klikatu [hemen](#).

EZ DAUKAZU EUSKARAZ NOREKIN EGIN?

Euskaltzaleen *Topaguneak mintzalagunONSarea* ekimena antolatu du: mintzapraktika saioak online! Hementxe duzu [informazioa](#) eta [izena eman](#).

ELKARGO EKIN: EXPOSICIÓN DIGITAL

Dentro de Elkargoak Euskaraz tenemos las actividades Elkargo Ekin: acciones de motivación trimestrales para trabajar en euskera, concienciarnos y actuar conjuntamente en un ambiente distendido. Debido a la situación creada por el Coronavirus, para esta primera vez os proponemos la siguiente iniciativa:

¿Qué hacemos para impulsar el euskera?

Seguro que hace tiempo que trabajas en tu ámbito profesional... y que has tomado alguna iniciativa para usar el euskera en tu trabajo. Nuestra propuesta es la siguiente: envíanos a basqueproeus@bm30.eus antes del 30 de junio algún rótulo que hayas puesto en euskera, una factura que utilizas en bilingüe, una foto de tu participación en Euskaraldia o Korrika, la página web que hayas puesto en euskera, o ¡lo que se te ocurra! ¡O cuéntanos tu experiencia! ¡¡¡Anímate!!! Luego haremos una exposición online con todo lo recogido.

USANDO EL TXANTXANGORRI

Los Colegios Oficiales participantes en *Elkargoak Euskaraz* de Basquepro ya hemos empezado a poner en marcha el primer objetivo que nos propusimos, al menos en la medida en la que nos lo ha permitido la situación.

Como leíste en el [anterior Jakizu](#), dicho objetivo consiste en comenzar a utilizar el logo que da confianza para hablar en euskera: el *Txantxangorri*, y ya lo estamos usando en firmas digitales y en las oficinas que tenemos abiertas. ¿Y tú? ¿Te animas?

CARTELES EN EUSKERA LISTOS PARA DESCARGAR GRACIAS A BAI EUSKARARI

La asociación *Bai Euskarari* nos ofrece muchos de los carteles que necesitamos en este momento debido a la pandemia del virus COVID-19 en diferentes idiomas. Haz click [aquí](#).

¿NO TIENES CON QUIÉN HABLAR EN EUSKERA?

La asociación *Topagunea* ha arrancado la iniciativa *mintzalagunONSarea*: la oportunidad de hablar online en euskera con otras personas.

[Aquí](#) tienes más información. Para [apuntarse](#).

